



Garagardo Azoka, Ikastolako eraikin berriaren alde

IRURA ▶ Bihar zabalduko ditu ateak laugarren edizioak, frontoian, eta igandera arte iraungo du; herri guztiak hartzen du parte antolaketan ▶ 4



Marisa Alvarez irakaslea, Marimi Ugalde alkatea eta Josune Aiestaran zuzendaria, Ikastolako hainbat haurrekin, atzo. I. GARCIA

I. TERRADILLOS



Ibarra-Racing Bearzun moto taldea aurkeztu dute

IBARRA ▶ Hirugarren lasterketa asteburuan korrituko dute; «gustuko en duguna egitea da helburu nagusia», dio Koldo Alonso gidariak ▶ 6

**TOLOSALDEA-
LEITZALDEA** ▶

Hileko azken ostiralean, bilkurak presoen alde

Otaegi leaburuarra
preso dagoen
Nanterre espetxetik
ere deia egin dute ▶ 5

IBARRA ▶

Kultur lantegietako ikasleen sormena

Eskulanak, ehoziriak,
altzariak, pinturak...
daude ikusgai
Kultur Etxean ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko hainbat errepideren egoera hobetuko du Aldundiak

Tolosa-Ibarra igarobidean, Baliarrainen eta Alegia eta Benta-Haundi artean ▶ 3



Mattin Garikano. N. LATABURU

TOLOSA ▶

Amarozko Antzerki Artisauekin bukatuko da gaur Antzerki Astea

«Betiko oinarriak hautsi eta jolastuko gara», dio Mattin Garikano aktoreak ▶ 2

ANTZERKIA ▶

Amarozko 'obrak' amaitzear

Gaur amaituko dute 'Gu ere obratan gaude...' Amarozko VIII. Antzerki Astea, Amarozko Antzerki Artisauak taldearen 'Un poco de impro' antzezlanarekin



Herenegun, umetxoei zuzendutako lana eskaini zuen Gorringo taldeak; Asto bat hipodromoan. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Gu ere obratan gaude... Lelo hau erabili dute Amaroz auzoan VIII. Antzerki Astean. Astelehenean hasita antzerki gozatzeko aukera aproposa izan da Tolosako auzoan, Amarozko Antzerki Artisauak antolatuta; guztira hiru antzezlan ikusi ahal izan dira doan, eta gaur azkenaren txanda izango da auzoko bertakoen eskutik, Amarozko Antzerki Artisauak, hain zuzen ere. *Un poco de impro* lana aurkeztuko dute, 20:00etatik aurrera, eta herri-tar guztiei bertaratzeko deialdia egin diete.

Haiekin batera, Irungo eta Pasaiaiko antzerki taldeek beraien lanak taularatu dituzte egunotan Auzo Etxean. Orain arte «jendetsuak eta arrakatsuak» izan direla adierazi dute antolatzaileek. Bada, gaur emango diote amaiera zortigarren edizioari, bertaratuentzat pasta, kafea eta guzti eskainiko dutelarik.

MATTIN GARIKANO ▶ AMAROZKO ANTZERKI ARTISAUAK TALDEKO KIDEA

18 urteko tolosarra da Mattin Garikano eta hiru urte daramatza Amaroz Antzerki Artisauak taldean. Gaur VIII. Amarozko Antzerki Astea itxiko dute, *Un poco de impro* lanarekin. Hitzarekin aritu da solasean.

Zertan datza zure taldearekin batera aurkeztuko duzuen lana?

«Antzerkiaren betiko oinarriak hautsi eta jolastu egingo gara emanaldian»

Nahiko berezia izango da; oinarri bat izanda inprobisazioa barneratu dugu. Ikus-entzuleek nahi dutenaren arabera, gu jolastu egingo gara.

Zein izango da bertan zure papera?

Ez daukagu bakoitzak bere papera. Pertsonaia bakoitzak mila egin ditzake, bizidunak zein objektuak interpretatuz. Imaginazioa irekita eduki behar dugu.

Zer transmititu nahi duzue?

Inprobisazioa antzerkiaren zati garrantzitsua da. Ohituta gaude gidoi batean oinarritutako antzerkia ikusten. Betiko oinarriak hautsi eta jolastu egingo gara. Jendeak ikus dezan ikasurtean zehar egindakoa.

Jendetza espero al duzue?

Edozein modutan interpreta daitekeenez, jende mota guztia dago zuzendua. Baina helduagoak espero ditugu. Xume-xume, baina ikusleen maila handitzen doa urtez urte Antzerki Astean.



NOELIA LATABURU

Tolosa gune egokia al da antzerkiarentzat?

Bi antzerki talde gara herrian, eta ez gara gutxi giroa sortzeko; agian eskua gehiago sartu beharko litzateke, beste kultur ekitaldiekin egiten den bezala. Guk ezagutzera ematea baino ez dugu nahi.

Eta zu, nolatan sartu zinen antzerki munduan?

Txikitatik ikastolan antzezla-

netan parte hartzen nuen eta duela hiru urte taldean sartu nintzen, gogo handiarekin. Asko ikasten dut bertan.

Nola garatzen dira, bada, zuen eskolak?

Alor asko ukitzen ditugu. May Gorostiaga dugu irakasle eta lehen urtean clown teknika landu genuen. Iaz obrekin oso gogor aritu ginen, eta aurten inprobisazioa landu dugu. ◀

MERCATARITZA ▶

Alde Zaharra-Dendak-en San Joan zozketa

Alde Zaharra-Dendak elkar-teak sanjoanetan eginiko zozketaren zenbaki irabazleak eman ditu jakitera. Irabazleek txartela aurkeztu behar dute elkarteko parte diren edozein dendan, datorren hilaren 7a baino lehen, ostirala, hau barne; egiten ez duenak bere saria galduko luke. Hauek dira zenbaki irabazleak: 750 eurokoa, 11.112 (Orus drogeria); 150 eurokoa: 69.758 (Lihura dekorazioa); 42.928 (Alberto bitxigintza); 89.812 (La huerta del pais); 85.797 (Arregi harategia); 77.175 (M G boutique); 51.414 (Bronte farmazia); 15.151 (Gorrotxategi dietetika); 65.654 (Arantxa jantzigintza); 74.545 (Phildar) eta 35.353 (Lardies).

ZINE-KLUBA ▶

'Nadie sabe' filma gaur, zine-klub saioan

Gaur, 21:30etik aurrera, Tolosako Kultur Etxean, zine-klub saio berria izango da. Aste honetan Kore-eda Hirokazu zuzendariaren *Nadie sabe* filma izango da ikusgai. Japonian 1988an sei hilabetez bakarrik bizi behar izan zuten lau umeren istorioa kontatzen du filmak. Bada, haurtzaroaren ikasketa berezia egiten du. Bere aktore Guaya Yagirak (Akira) Aktore Onenari saria lortu zuen 2004. urteko Cannes-eko Zinema Jaialdian.

MUSIKA ▶

Bi kontzertu bihar Bonbereneako taula gainean

Hilabete guztian zehar kontzerturik izan gabe igaro ostean, bi kontzertu berrirekin agurtuko dute ekaina Bonberenean. Hala, bihar, 22:30etik aurrera, Nueva Vulcano eta The Life and Times estatubatuarren emanaldia izango da entzungai. Lehenak, Aina taldeko abeslaria izandakoaren talde berria, Bartzelonatik (Katalunia) datoz eta euren bigarren diskoa aurkeztuko dute Tolosan. The Life and Times taldea, berriz, Cansas-etik dator, eta duela gutxi argitaratu berri duten EP-a aurkeztuko dute.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak 2006ko ekainaren 5ean egindako bilan honako proiektu honi hasierako onespina eman zion zenbait baldintzarekin:

E.46 "Berazubi Mendebaldea" eremuko Urbanizazio Proiektua, Bista Alai, S.A.-k sustatutakoa.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HAMABOST EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendeaurrean jarrita egongo da. Hirigintza Planeamendu Erregelamenduko 14.1 artikulua eta Hirigintzaren Plangintza eta Kudeaketarako tresnak izapidetzeko ekainaren 30eko Eusko Legebiltzararen 17/94 Legeko 7. artikulua xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria, Hitz eta Diario Vascon argitaratuko da. Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaltzeko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaltzeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2006ko ekainaren 26an.
ALKATEA

HIRIGINTZA ▶

Eskualdeko errepideen egoera hobetuko dute

Aldundiak Baliarraingo errepidea moztu, Alegialdeko urak biltzeko hodiak eta Tolosa-Ibarrako igarobideak berrituko ditu



Besteen artean, Alegiatik Bentaundira doan errepide inguruan sartuko dute ur-hodia. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat konponketa eta berrikuntza egingo ditu eskualdeko errepideetan.

Baliarrain errepidearen hasierako zatia ordezkatzen duena errepideen foru sarearen katalogoan sartzea erabaki du Aldundiak. Ibilgailuentzat itxita dago saihebidia. Ibiurko urtegiko lanak egiten ari direlako. Zati horrek 1,1 kilometroko luzera dauka.

Alegia eta Benta Haundi

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Oria Erdian saneamendu fase berri baterako obrak esleitu ditu. Fase honek Alegia eta Tolosako Benta-

Haundi lotuko ditu. Obren kostua 3.220.000 eurotik gorakoa da, eta urte eta erdiko epean burutuko dute Fonortek eta Dragados enpresek.

Legorretan, Ikaztegiaren eta Alegian pilatutako hondakin-urak eramango dituen bi kilometroko hodia ipiniko dute.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, egun, martxan du Legorreta eta Alegia bitartean dagoen aurreko fasea. Tolosa zeharkatuz Benta-Haunditik Arrameleko zubiraino joango den hurrengo faserako proiektua ere bideratzen ari da.

Obrak «2008. urterako amaituko dituzte», eta hauei esker posible izango da Oria Erdiko urak bildu eta Adunan eraikiko duten araztegiara bideratzea.

Ordiziatik Alegiara doan

errepideko zoruaren 5 kilometro ere konponduko dituzte, Amezketako eta Alegiako bidetan. Diputatuen Kontseiluak enkantera ateratu ditu. Amezketako saihebidearen eta Altzomunotik Alegia eta Txaramara doan bidegurutzearen artean.

Ibarraldean

Tolosa eta Ibarra arteko igarobidea ere erabat berrituko dute, eta obrak enkantera ateratu dituzte. Egiturako elementuak berritzea eta ibilgailuei eusteko sistema egokitzea izango dira egin beharrekoak. Gastua 2,4 milioi eurokoa da, eta egiteko epea 8 hilabete. Egin beharrekoak: zorua, galtzadako jurturak, eusteko hormak, drainatzeak eta habeen elementu eusleak konpontzea.

BIDEGOIAN ▶

Konposta etxean egiteko izena emateko azken egunak

Lorategi edo baratza txiki bat izatea da baldintzetako bat interesa dutenentzat

N. URBIZU

Etxean konposta egiteko izena emateko azken egunak dituzte Bidegoianen. Astelehena arte eman daitezke izena.

Urola Erdialdeko Mankomunitatek iristen da abisua. Bidegoian udal elkarte horretako udalerrietako bat izanik, herrikoei zuzendua da.

Ikusirik Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Saila etxean konposta egiteko beste kanpaina bat egitera doala, jende gehiagok parte har dezan, Urola Erdialdeko Udal Elkarte Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Sailarekin batera abian jartzera doa etxean konposta egiteko hirugarren kanpaina. Horren helburua norberak bere etxean sortutako materia organikoa konpostatu eta berrerrabiltzea da.

Interesa dutenentzat

Bertan parte hartzeko, lorategi txiki bat edo baratza bat izan behar da, gero prozesu horren ondorioz lortutako konposta bertan berrerrabiltzeko.

Kanpaina honetan parte hartu nahi dutenei, konpostagailua, horren erabilpenarako ikastaroa eta liburuak, eta aholkularitza zerbitzua emango zaie, sortzen diren zalantzak argitzeko. Izena eman nahi dutenek hurrengo moduan egin dezakete: ueue@udal.gipuzkoa.net, helbidean, edo Bidegoiango Udalera deituz: 943 68 11 09.

AMEZKETA ▶

Bertso afarira eta emanaldira joateko aukera

Bertso saioa egingo dute bihar, Amezketako balio anitzeko gelan, 20:00etan, Peña-garrikanok eta Irazuk. Ondoren, bertso afaria izango da frontoi zaharrean, eta dagoeneko, 56 lagun daude. Oraindik ere antolatzaileekin harremanetan jarri, txartela lor daiteke. Beraz, jai giroan euskaraz eta euskararekin gozatzeko topaketa aproposa izango da Amezketan.

KULTURA ▶

Ipuin kontalaria, etxeko txikiaren gozagarri

Bihar Idoia Santxez ipuin kontalaria egongo da Abaltzisketako eta Orendaingo liburutegietan. 17:00etan Abaltzisketan, eta 18:15ean Orendainen.

IKAZTEGIETA ▶

Jubilatuen bilera astelehenean egingo dute

Astelehenean Ikaztegiako liburutegian jubilatuentzako bilera 11:00etan egingo dute. Bertan, jubilatuen beharrei buruz hitz egingo dute.

ANOETA ▶

Liburutegia uztailan goizez egongo da irekita

Anoetako liburutegiaren ordutegia uztailan 11:00etatik 13:00etara izango da. Internet erabili nahi duenak, berriaz, 09:30etik 13:00etara. Abuztuan itxita egongo da, eta irailaren 4an berriz irekiko dute ohiko ordutegiakin.

ALEGIA ▶ PALA



Gipuzkoako Pilota Txapelketa

N. Urbizu ▶ Hernanin jokatu zuten Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketan pala finala hiru gazte alegitarrek. Hiru alebin hauek Eneko Lasa, Iñaki Artola—argazkian— eta Pedro del Pozo izan ziren, hain zuzen ere. Beraz, eskuz bakarrik ez, palan ere kirolari abilak ditugu eskualdean. HITZA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Puntukako gidabaimena larunbatetik aurrera aplikatzen hasiko dira: ondo iruditzen al zaizu puntukako gidabaimenarekin hartuko diren neurri berriak? Zerbait konponduko duela uste al duzu? Jakinaren gainean zaude?». Eman zure iritzia!

iragarki laburrak ▶

LANA
Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 667 32 99 34.
Tabernaria. Neska behar da tabernan lana egiteko. 658 74 62 87.
Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

IRURA ▶ IV. GARAGARDO AZOKA

Ikastolako eraikin berriaren alde, topa

IV. Garagardo Azoka bihar hasiko da eta igandera arte iraungo du; herri guztiak hartzen du parte antolaketan

IMANOL GARCIA

Irurako IV. Garagardo Azokari hasiera emango diote bihar arratsaldean herriko frontoian. Aurreko hiru edizioetan bezala, ateratzen den dirua ikastolarentzat zuzenduko da. Aurten goa bereziagoa izango da, Ikastolaren eraikin berriaren obrak laster hasiko direlako martxan. «Lehenengo harria sanmigeletan jartzea espero dugu», azaldu du Josune Aiestaran Ikastolako zuzendariak.

Eraikin berriaren proiekturako ahal den gehiena biltzeko asmoarekin, ia herri guztia ari da prestaketan parte hartzen eta azokako egunetan lagunduko du. «Sortzen den giroa oso ona da», dio Marimi Ugaldere Irurako alkateak. «Mundu guztia konprometitzen da». Irakasleek, gurasoek eta haurrek, denek hartzen dute parte zerbaitetan. «Udalak ematen duen laguntza ere nabarmen-tzekoa da», dio Marisa Alvarez irakasleak —datorren urtean Ikastolako zuzendaritza banatuko du Aiestaranekin—.

Iaz bezala, haurrek pitxiak eragin dituzte Garagardo Azokan



lazo garagardo azokaren irudia. J. SAIZAR

saltzeko. Bestalde, ikastolako kamiseta berriak ere salgai izango dira. Guraso ohiek ere parte hartzen dute. Esaterako, Jesus Mari Arsuaga artisauek xare txikiak egin ditu ere salgai jartzeko.

Menuen berritasunak

Garagardo azoka bihar hasi eta igandera arte iraungo du. Orduetgia 18:00etatik 01:00-etara izango da. Bihar, inaugurazio egunean, ateak 19:00-etan irekiko dituzte.

Guztira, 15 garagardo mota

dastatzeko aukera izango dute edari apardunaren zaleek. Horietatik 13 pitxarreen eta beste biak botiletan. Menuen berritasunak izango dira aurten: bakailoa tomatearekin izango da aukeran eta baita kroketak ere. Ez dira faltako azoka guztietako saltxitxak, ukondoa eta herriko txistorra ere.

Urtero bezala, herritarren presentzia espero dute antolatzailuek eta dei berezia egiten die eskualdeko beste herritarrei «garagardoa dastatu eta zerbait afaltzera» joateko. Gorbata luzatuta dago.

VILLABONA ▶ KULTURA

Iragana 'Oroituz', aurrera begira

Eskoriatzan hasiko ditu gaur Oinkarik udan eskainiko dituen ikuskizunaren saioak



Oinkariren Oroituz ikuskizunaren irudia. HITZA

ERREDAKZIOA

«Xinpleak, lauko-arinak, karrikerak, murrikkak... pausoz pauso euskal dantzen munduan barneratzen goaz, hitzez soilik baldin bada ere. Hitzetatik ekintzetara pasatu nahi horretan Oinkari dantza taldea hartuko dugu mintzagai, 180 arrazoi desberdin baitaude horretarako, Villabonako dantza talde honetako 180 partaideak, hain zuzen ere». Hitz horiekin aurkezten dute Oinkari dantza taldekoek Oroituz ikuskizunarekin emango dituzten emanaldiak.

Ikuskizun horren prestaketan murgilduta dabilta azken hilabeteotan Oinkarikoak; izan ere, hainbat emanaldi dituzte udan. Gaur Eskoriatzan izango dute aurten lehen emanaldia. Hamabost egun baino ez dituzte izango bigarrena prestatzeko, Alegiakoa, hain zuzen ere.

Azken biak eskaintzeko Katalunia aldera egin beharko dute bidaia. Lehena abuztuaren 15ean Les Borges Blanques-en eskainiko dute eta bestea, berriz, hil bereko 25ean L'Arboç izeneko herrian.

Iturri-Ondo
ONDO PASA SAN PEDROAK!
Tel.: 943 69 13 31 • 20159 ASTEASU

TXORTU
Lantegiak, S. Coop.
Piezen mekanizaketa eta Muntaketa
Industri poligonoa, A area 9, z/bk
Tel.: 943 69 17 78
Faxa: 943 69 33 87
ASTEASU

TRANSPORTES
IRVRZYN SL
Asteasu Industriegunea,
A area 3, zombakia
Tel.: 943 69 42 03
Faxa: 943 69 44 11
20159 ASTEASU
irurzun@irurzun.net • www.irurzun.net

Jai zoriontsuak pasa herritar nahiz kanpotarrei!
Okindegia - Kafetegia - Gozotegia
KABELA
Zai gaituzte!
Nagusia, 3 - Tel. 943 69 64 05
ASTEASU

PATXINE JATETKEA
Gure berezitasuna.
Euskal sukaldaritza eta etxeko postreak
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Tel.: 943 69 10 25
Erremerentari kalea, 1 • 20159 ASTEASU

TOLARE-SAGARDOTEGIA
Jatorrizko Sagardoa
SARASOLA ondo pasa sanpedroak!
Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
Zumalkardi Baserria - ANOETA
Tel.: 943 65 26 22
Larunbata eta igandetan eguerdian irekita

EBAKI LAN
Ondo pasa San Pedroak!!
Asteasu Industrialdea B-51 • 20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
Tel.: 943 693 232 • Faxa: 943 694 372
laser@ebakilan.com

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Ikastolakoek aipamen berezia Osasunkume lehiaketan

ERREDAKZIOA

Osasunkume programako eskola lehiaketan aipamen berezia lortu du Jesusen Bihotza Ikastolako LH 3A, 3B, 4A eta 4B taldeko kideek. Programa honen helburua bizimodu osasungarriko ohiturak sustatzea da. Haurrek album eta kro-moen bidez lantzen dituzte gai hauek.

Bi zutabetan oinarritzen da programa: eguneroko jarduerari eta gainontzekoen laguntzari esker, norberak lortzen dituen gaitasunak izatea, eta ohitura osasungarriak sustatzea.

PRESOAK ▶

Mobilizatzeko deia Nanterre espetxetik

Bihar hileko azken ostirala izaki, herriz herri elkarretaratzeak daude deituta

ERREDAKZIOA

Nanterreko (Frantzia) espetxean preso dituzten lau euskal herritarrek, Andoni Otegi leiburuarrak haien artean, dei egin diete elkarte, sindikatu eta giza eragileei, herritarrei orohar, «preso politikoen eskubideen alde bakoitzak bere eremutik euren ekarpenak» egin ditzaten, eta ildo horretatik «hilaren azken ostiraletako enkarteladara inguratzea animatu» dituzte herritarrek, «guk ere zuekin bat egingo dugu» baieztatuz.

Hain zuzen ere, euskal preso politikoen senide eta lagunen elkarteak, ETXERATEK, HITZARI helerazi dion eskutitzean, Frantziako Nantes espetxean preso dauzkaten lau euskal herritarrek adierazi eman dute «egunero» pairatzen duten «eskubideen aurkako zapalkuntza eta honekin gure senideei eta lagunei ezartzen dieten zigorrari» aurre egiteko «euskal presoosen estatus politikoaren alde eta gainerako eskubideen alde» kartzela barruan burutzen duten borrokan berri eman dute.

Zigorra egunerokoa

Hala, idatzian aitatzen dutenez, esate baterako, hileko 2. ostiraletan uko egiten diote arrantxoari, «bakarturiko kideen egoera salatze eta gaixo larrien askatasuna eskatzeko»; eta «patio orduetan, estradizio eta kanporaketak salatze eta enkarteladak» egiten dituzte; eta



Leiztan elkarretaratze bat. J. A.

«presoan, senideen eta gudarrien erahilketak saltzeko 24 orduko itxialdiak»; eta «jipoi eta erasoan aurrean 24 orduko baraualdiak»; eta «senide eta lagunen istripuen aurka enkarteladak»; eta, zehazten dutenez, «isolamendu politikoaren aurka, estatus politikoaren alde eta Euskal Herriratzeko eskatzeko, herrietako enkarteladekin bat» egiten dute azken ostiraletan.

Egunero jasaten dituzten eskubideen urraketek eta zigorrak, gainera, «borrokarako arrazoiak indartu besterik» ez dutela egiten adierazi dute gutunean; eta «gatazka politikoaren konponketarako, soluzio politikoen premia baieztatu».

Zentzu horretan, Etxeratak, elkarretaratzeak deitu ditu biharko Tolosaldean eta Leitzaldean ere, «estatus politikoarekin, euskal preso politikoa etxera» aldarriarekin, ohiko lekuan: 19:30ean, Alegian, Amezetan, Anoetan, Ibarrian eta Tolosan; 20:00etan, Aduñan, Asteasun, Ikaztegiatan, Leiztan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilan.

LEITZA ▶

Plazaolako kartelen erakusketa ez dute egin

«Antolakuntzako arazoak» izan dituzte eta beste deialdi bat egiten omen dute

J. ASTIBIA

Lehenengo igandean zuten egitekoa Plazaola aldi-zikariko azalerako lehiaketako kartelen erakusketa Aurrera elkartearen Baina HITZARI agertu diotenez, ez zuten egiterik izan; «antolakuntza arazoak zirela eta», bertan behera gelditu zen.

Leihaketara aurkeztutako kartelekin erakusketa egin eta hori ikustera joandakoek egindako bozketa-aren ariora aukeratu ohi dute Plazaola aldi-zikariaren azalean joan dena, beti ere helduen sailekoen artean egindako aukeraketa-aren ariora.

Aurtengo edizioarako, «gutxienez lau gaztetxok helerazitako kartelak» badituzte, «batek 3 marrazki aurkeztu ditu», zehaztu dute; eta helduen sailean ere beste lauzpabost proposamen. Horrela, erakusketa egiteko materiala izan badute, baina «azken orduko arazo bat dela medio ez zen erakusketa egiterik izan», azaldu dute.

Edozein moduz, erakusketa hori egiteko asmoa badutela baieztatu dute eta noiz egiten den jakinaraziko omen dute.

Plazaola aldi-zikaria Aurrera elkarteak osatzen du, Santiburtzio festetako egitarauarekin eta herritarrek hor argitaratzeko igortzen dituzten askotariko idatzekin. Eta urtean behin, festetarako, abuztuaren aurrenerako, argitaratzen dute.

LEITZA-ARESO ▶ UDALA

Aresoko herrigunearen zolaketa aztergai gaur

Areson gaur 17:30ean egingen dute batzarra udaletxean; Leiztan, berriz, bihar 21:00etan

J. ASTIBIA

Gaur egingen dute udalbatzarra Aresoko herrian, besteak beste, eguneko gai nagusia izanen den Aresoko herrigunearen zolaketa-lanen gaineko dokumentazioa prest zegoenerako iragarritakoa.

Ez ohiko batzar horretarako 17:30ean dute lehen deialdia zazpi udal ordezkari; ordu erdi beranduago, 18:00etan, bigarrena eta erabatekoa. Eta aitatu bezala, herrigunearen zolaketa-lanen inguruan, hiru puntu izanen dituzte aztergai: alde batetik, «zolaketako proiektuaren onespena» dute egitekoa (horren zain egon omen dira batzarra egiteko, argitu dutenez); bestetik, zolaketa-lan horiek egin ahal izateko dirua, alegia «lanak finantzatzeko mailegua eskatzea oneste»; eta azkenik, lan horiek egiteko enpresa aukeratzeko «kontratazio espedientea oneste».

Baina deialdian ageri denaren ariora, hori baino lehen badituzte bestelako hainbat gai ere aztertze, noski, aurreko batzarreko akta irakurri eta onetsi ondoren: Urteagako usategietako ehizerako baldintza-plikak, kirol-mankomunitatearen estatutuen onspena, eskolako Kontseiluaren manifestua oneste, festetako zezen-ikusizunak oneste, besteak beste. Hauen artean nabarmendu «2006. urterako aurrekontuen hasierako onspena» ere egitekoa dutela.

Leiztan, bihar

Eta Leiztan, berriz, bihar egingen dute ohiko batzarra, 21:00etatik aurrera, honako puntu hauek izanik mahai gainean: «2005eko Kontu Oroko



Aresoko herrigunea. HITZA

rraren onspena» eta «aurten-go aurrekontuaren aldaketa onartzeko» eta «Patxi Arrazola-ko etxearen alokera luzatzeko» proposamenak hogasunari lotutakoak; Kooperatibako auzoko lanen egile den Zaraz enpresak «prezioak berrikusteko egindako eskaera» ere eztabaidagai izanen dute.

Ordenantza berria

Partikular batek egindako «lur-trukaketa eskaera bertan behera uztea» aztertu ondoren, «herri lurren ordenantza berria onartzea» aztertuko dute, horien aprobetxamenduko arauen aldaketa proposatuta.

Bestela, hirigintzako hiru puntu ageri dira deialdian. Bi partikularrek bakoitzak bere aldetik bultzatutako Hirigintza Planaren bi aldaketa eta Larrañ Herri Plataformak aurrekeztutako «A.R.-2 eta U.E.32ko proposamena». Hirigintza Planean Landa Behiko eta Goikoari dagozkie aitaturako kode horiek.

Plataforma honek auzoketarako «Leitzarren borondatea gauzatu» mozioa izanen dute azken puntua.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Ibarrako zerbitzu publikoen desegitea

Ibarrako udaleko langileen ordezkariok herriari jakinarazi nahi diogu udal gobernua (EA-PNV) legealdi honetan egiten ari den pribatizazio politika.

Hiru urte hauetan honako zerbitzuak pribatizatu dira: hilerria, urak eta kiroldegiko mantentze zerbitzua. Horrez gain, zerbitzu publikoak pribatizatzeko jarraitzeko asmo nabarmena ageri dute. Herritarrei ematen zaizkion zerbitzuen kalitatearen murrizketa dakar honek, eta areago, zenbait kasutan indarrean zeuden kontratuak eten dira enpresa

pribaturen bati esleitzeko (kiroldegiko mantentze enkargatua, kasu). Udal gobernua dio pribatizatzeko politika honen arrazoia dela «merkeago eta erosoago» izatea, baina guk galdetzen dugu: merkeago eta erosoago norentzat? Faktura bikoiztua jaso duen herritarrentzat? Ur etenaldiak eta ur edangaitza jasaten duen herritarrentzat?

Arrazoibide hauek, sinestezinak izateaz gain, Udalaren kudeaketa gaitasun eza islatzen dute. Nahiago ditu erositasun eta lasaitasuna, herritarren beharrei erantzutea baino, hauek zerbitzu on eta zuzena eskatzen baitute, eta adiera horiek pribatizazioaren iluntasunean galtzen dira.

Inork ez daki ez nora ez nozengana jo behar duen, zergak

ordaindu bai, baina zerbitzu bat erreklamatu behar duenean. Nahiago ditu egoera txarreko langileak (zabor kontratuak, ordutegi gabeko lanak, hitzarmen gabekoak...) eta ez kontratu finko batek—hori lortu nahi dutenen artean baldintza berdinetan arituta— ezartzen duen lan duintasuna. Lanpostu bat lortzeko, aukera berdinean borroka egitetik, adiskidetasunari esker lortzera igarotzen da, mesede politikoak ordaintzera, alderdi jakin bateko txartela izatera...

Herritarrei eskaini beharreko zerbitzuak garesti edo merke izateari dagokionez, inork ez ditu mahai gainean jarri zenbakiak ikusteko, benetan, zerbitzu pribatua merkeago den edo ez udal kutxarako. Herritarrei zerbitzu on bat eskai-

ni behar zaionean, uste dugu, ekonomia errekurtsuak kudeatzean, kontuan izan behar dela Udal bazkideei ordaindu nahi zaieen gastuaren beste adiera batzuek garesti izatea. Hain zuzen ere, Udal bazkideei ordaindu nahi zaie herriko zerbitzuak ondo kudeatzeagatik eta ez, zerbitzu horiek pribatizatuz, ardurak saihesteagatik.

Guztiagatik, gobernu honi eskatzen diogu amai dezala herriko zerbitzuak pribatizatzeko etenik gabeko lasterketa hau. Halaber, eskatzen diogu, beharrezko bideak ezartzeko zerbitzuen kudeaketa zuzena berreskuratzeko, Udal honek herritarrei beti eman beharreko zerbitzuak baitira.

XABIER AYERZA (ELA) ETA
XABIER PIKABEA (LAB) ▶ IBARRA

IBARRA ▶

Preso eta iheslarien alde, Tourreko porra

Urtero legez, aurtun ere preso eta iheslarien aldeko Tourreko porra antolatuko du Ibarrra Herri Ekimenak. Etzi izango da izena emateko azken eguna, eta Atarin eta Sendi Ekintzan egin ahaliko da, 12 euro ordainduta. Frantziako Tourrean ariko diren 10 txirrindulari, eta 3 talde aukeratu beharko dira.

IBARRA ▶

Koadrilen Eguna antolatzeko bilera gaur, Xeplan

Aurtengo sanbartolometan koadrilen 25. urteurrena ospatzen denez, ospakizunari arreta berezia emateko gaur, 20:00etan Xeplan, lehen Koadrila Egunean parte hartu zutenei bertaratzeko deia egiten zaie. Halaber, garaiko argazkiak ekar ditzaten eskaera berezia egin diete.

IBARRA ▶ MOTORRA

Ibarra-Racing taldea Yamaha Challengean

Herenegun egin zuten talde berriaren aurkezpena; bi lasterketetan aritu dira, eta asteburuan dute hirugarrena



Koldo Alonso, motorraren gainean, lasterketa batean. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra-Racing Bearzun motolasterketa taldea, Bearzun-Detall zeramika etxearen laguntzarekin, eta Koldo Alonso ibartarra gidari dela, Yamaha Challenge Txapelketan ari da parte hartzen. Hain zuzen ere, herenegun egin zuten proiektu berri honen aurkezpena Ibarrrako Karlatz garagardotegian.

Alonso moto gidariak proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen, eta halaber, las-

terketetan erabiltzen duten motorra ere erakutsi zuen. Bestalde, «Ibarrra herriaren izena zabaltzen duen proiektu hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan den herritarren laguntza» eskertu zuen ibartarrrak. Aurkezpena egin ostean bertaratu zirenek jatekoa eta edatekoa dastatzeko aukera izan zuten.

Gidari berrien promozioa

Yamaha Challenge Txapelketa Espainiako hainbat zirkuitutan burutzen diren 6 lasterketetz osatua dago, eta gidari berrien promozioa bultzatzea du helburu. Ibarra-Racing taldekoek bi lasterketa burutuak dituzte, biak ere Jaramako zirkuituan; lehendabizikoa, 70 parte hartzaileetatik 24. postuan amaitu zuten, eta bigarrenean, berriz, erorikoa izan zuten. Hurrengo, asteburu honetan izango dute Albaceteko zirkuituan.

KOLDO ALONSO ▶ MOTO GIDARIA

«Gustuko en duguna egitea da helburu nagusia»

Aspalditik du Koldo Alonsok motorrekiko zaletasuna. Afizioa konpetizio bilakatu da orain.

Nola sortu zen proiektua?

Pasa den urteko irailean hasi ginen. Bearzun Detall etxearen babesa nuen, eta Ibarra-Racing-eko Markos Landaren laguntzarekin udaletxean aurkeztu genuen proiektua. Motorraren bila hasi eta segituan entrenatzeari ekin genion. Iru-

rako Martin Lopetegik ere asko lagundu zigun.

Nondik dator Ibarra-Racing?

Ibarrako koadrila batek sortutako izena da, pegatinekin-eta pixkanaka zabaltzen hasi zena. Proiektuarentzat ez genuen izenik eta Markos Landari Ibarra-Racing jartzeko proposamena bota nion. Apropo- sa iruditu zitzaigun.

Zein da zuen helburua txapelketa honetan?

Helburu nagusia ondo pasatzea eta gehien gustatzen zaiguna egitea da. Txarrena, hori lortzeko gastatu behar den diru gutzia gehiegi dela.

Noiztik motorrarekiko zaletasuna?

9 urte nituela ikasi nuen motorean ibiltzen. 18 urterekin erosi nuen lehendabiziko motor handia; berarekin Frantziako Pau zirkuitora joan, eta ordutik ezin izan dut utzi. ◀



I. TERRADILLOS

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garaioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotiza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KULTURA



Erakusketa. Eskulanak, egur-taiak, altzari errestrauratuak, margolanak, bainika eta ehoziariak landu dituzte besteak beste, 2005-2006 ikasturtean burututako tailerretan. E. EZEIZA



Pintura. Estilo guztietako margolanak burutu dituzte pinturako ikasleek. Honen adibide, argazkian ikusi daitekeena, sanjoanetako batel estropadak ardatz hartuta Ibarrako arraunlari batzuek margotu dituzte. E. EZEIZA



Ehoziariak. Ikastaroetako batean, bainikako eta ehoziarietako lanak burutu dituzte. Tailer honetan zazpi ikasle aritu dira lanean. E. EZEIZA



Altzari-errestaurazioa. Kutxak, maletak eta beste hainbat altzari errestrauratu dituzte ikastaro honetan bost lagunek. E. EZEIZA



Eskulanak. Ikastaro honetan sei pertsonak hartu dute parte. Hemen, besteak beste, kaxak, platerak eta beirak margotu dituzte. Bestalde, irudian ikusi daitekeen bezala, telefono gida batekin antzinako liburu bat egin dute. E. EZEIZA

Ikasitakoa erakusteko garaia ailegatu da

Uztailaren erdirarte, kultur lantegietan burututako artelanak ikusgai daude Benito Izagirre kultur etxean

ESTI EZEIZA

Ikasturtea amaitu da, eta kurtsuan zehar egindako lanak erakusteko garaia iritsi da. Horregatik, Ibarrako Kultura eta Gazteria Sailak antolatutako ikastaroetan gauzatutako artelanak ikusgai dira Benito Izagirre kultur etxean. Hilaren 18an areto dantza eta sabel dantza saioekin eman zioten hasiera erakusketari. Honen ostean

lunch-a egin zuten lantegietako parte-hartzaileek, udal ordezkariekin batera, eta ondoren, inaugurazioa egin zuten. Bi egun beranduago, berriz, aretoa publikoari ireki zitzaion.

Hala, datorren urtean lantegietan parte hartzeko interesa duten pertsonak bertan lan-tzen dena ikusteko aukera paregabea dute, uztailaren erdirarte, 09:00etatik 13:30era, Ibarrako Kultur Etxean.

Bederatzi ikastaro

Irailetik ekaina bitarte, denera, bederatzi kultur lantegi burutu dituzte Kultur Etxean, eta hauetan 90 bat lagunek hartu dute parte; horietako gehienak ibartarrak badira ere, kanpokoren bat edo beste ere aritu da.

Erakusketan ikus daitezkeen lanak, besteak beste, honako ikastaro hauetan landu dituzte: eskulanak, bertan sei ikasle

aritu dira, Leire Markinezen gidaritzapean; ehoziri eta bainika eskoletan zazpi lagunek hartu dute parte, eta Mertxe Urretabizkaia aritu da irakasle lanetan; altzarien errestraurazioan, berriz, bost lagun aritu dira, Miren Aloixeren esanetara. Bestetik, egur taian, zortzik hartu dute parte, eta Maren Arrizurrieta izan dute irakasle. Azkenik, pinturako eskoletan landutakoa ikus daiteke erakusketan; hemen zazpi lagunek hartu dute parte, eta Jose Luis Longaronen gidaritzapean aritu dira. Tailer hauez gain, beste ekintza batzuk ere burutu ahal izan dituzte ibartarrek, horien artean, areto eta sabel dantza, argazkilaritza eta masajea. Urte ugari daramatza Kultura eta Gazteria sailak horrelako lantegiak antolatzen, eta kasu gehienetan parte-hartzaileek errepikatzen dute.



Egur-taia. Euritako-ontziak, ordulariak, kuadroak... egin dituzte, besteak beste, egur-taiako eskoletan. Denera, zortzi lagunek hartu dute parte ikastaroan. E. EZEIZA

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 29a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. *Un poco de impro.* Amaroako Antzerki Artisanuen antzezlan, helduentzat. 22:00etan, Amaroako Auzo Etxean. VIII. Antzerki Astean.

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Idoia Santxex ipuin kontalaria. Bihar, 17:00etan, liburutegian. Galtzaundik antolatuta.
Alegia. Igandeko UEMA egunean izango den txekor jaterako sarrerak salgai, herriko tabernetan eta Kultur Etxean. Helduentzat 18 eurotan, eta gaztetxoentzat 4 eurotan (paella izango da haietzako menua).
Amezketak. Bertso emanaldia Anjel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Irazurekin. Bihar, balio anitzeko gelan, doan.
Anoeta. Idoia Santxex ipuin kontalaria. 18:15ean, liburutegian. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.
Ibarra. Sanbartolometako lehen Koadrila Egunean parte hartu zutenei bilera deia, ekimenak 25 urte betetzen dituela eta. 20:00etan, Xepelan. Urte haietako argazkiak eramatea eskatu dute.
Ibarra. Preso eta iheslariaren aldeko Tourreko porra. Izen-ematea, etzi arte, Atarin eta Sendi Ekintzan.
Ikaztegieta. Idoia Santxex ipuin kontalaria. Bihar, 18:15ean, liburutegian. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.
Leitza. Aurrera elkartearen batzarra. 20:00etan lehen deialdia, eta 20:30ean bigarrena, elkartean.
Tolosa. Jai batzordearen bilera, sanjoanetako balantzea egiteko. 19:00etan, Kultur Etxean.
Tolosa. *Tolosa musika* CDen aurkezpen ekitaldia. 20:00etan, Musika Eskolan.
Villabona. Otsagi-Belagoa mendi irteera antolatu du

Aizkardik astebururako. Izen-ematea, elkartean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskulturak. Uztailaren 1a arte ikusgai, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Eskulan tailerretako ikasleen lanak, Aranburun.
Tolosa. Iñaki Epelderen, Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren lanak, Errotan.

HITZALDIAK

Orexa. *Bainu termalak: prebentziozko tratamenduak eta terapeutikoak.* 16:00etan, udaletxeko ganbaran.

SANPEDROAK

Asteasu. 10:00etan, txistularien diana; 11:15ean, meza nagusia; ondoren, Elizmendin hamaiketako eta Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketako finalak; 18:30ean, Asteasuko XI. Dantza Solteko Txapelketa plazan; 19:30ean, Asteasuko Musika kalejira: txistulariak, trikitilariak eta kantu jira; 23:00etan, musika emanaldia plazan: Mal de ojo eta Iztotz taldeak; gauerdian, zezensuzkoa eta sufesta; egun osoan, haur parkea.
Leaburu. 10:00etan, suziriak eta txistularien diana; 10:30ean, meza nagusia; ondoren, herriko dantzarien saioa; 11:30ean, hamaiketako herrikoia Ostatuan.
Urkizu. 09:00etan, diana; 11:00etan, meza nagusia; 14:00etan, gonbidatuekin bazkaria; ondoren, trikitilariak alaituko dute eguna.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Kore-eda Hirokazu zuzendariaren *Nadie sabe* filma. 21:00etan, Kultur Etxean.



Lurraldeko 2. mailara igo da Denak Pizzak

TOLOSA ▶ Bi urte soilik behar izan ditu Denak Pizzak areto futbol taldeak Lurraldeko 2. mailara igozteko. Ligan laugarren postua lortu ostean, play-off-a jokatzeko azken txartela lortu zuten. Denboraldi guztian mantendu zen goiko postuetan, eta merezimendu osoz sailkatu zen. Finalerdia irabaztea beharrezkoa zen igoera lortzeko, eta Tolosako taldeak ez zuten hutsik egin, Ligan lehen postua lortu zuen Plastigaur taldea (Donostia) mendean hartuta (3-1). Nahiz eta helburu nagusia beteta izan, igoera, finala jokatu behar zuten Denak Pizzak-ek: Seguros Bilbao Eibarren aurka berdindu, eta penaltiak eibartarren alde izan ziren. Taldeak eskerrak eman nahi dizkie babesle guztiei, «batez ere Denak tabernari eta Hirukide Eskolapioak ikastetxeari». HITZA

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1.
943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarriketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
22:00-23:00. *Gau bere.*


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea



URTE ASKOAN
Jon Irazusta Aristi (Alegia).
Gaur 7 urte. Zorionak familiaren partetik.



ZORIONAK, AMAIUR
Zure 2. urtebetetzean aitabo, amaboa eta familia guztiazen partetik. Ondo pasa, biki!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
2006 Harpidetza kibraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian